

AZKUEREN HIZTEGIAREN ARGITALPEN BERRIA AURKEZTEAN

Donostia, 1984, Maiatzak 25

Fr. Luis Villasante

Euskaltzainburuaren hitzak

Jaun-Andreak:

Pozez beterik aurkezten du gaur Euskaltzaindiak Azkueren Hiztegi handiaren argitalpen berria. Tomo gotorra eta galanta, Mitxelena jaunaren azterketa lan bat sarrera gisa duelarik. Bai. Bazen ordua, baina noizbait heldu da ordu hori!

Hiztegi honek ez du aurkezpen luze baten beharrik. Esan hau inoiz ongi esana egon bada, kasu honetan, noski. Azkueren hiztegia ezaguna da, oroz estimatua da. Igaro dira 80 urte kasik lehen aldiz agertu zenetik, eta bitarte horretan euskal hizkuntzaz arduratu izan diren guztien estimua bereganatu du. Euskal idazleek honera jo behar izan dute argibide fidagarrien bila, eta berdin hizkuntzalari eta linguistek.

Orixek zioen bezala, Hiztegi hau izan da mende hontako guztiontzat “euskera onaren iturri” (Euskal literaturaren atze edo edesti laburra”, *Euskal Esnalea* (1927), 250). Eta Schuchardt hizkuntzalari famatua loriaturik eta pozez jauzika jarri zen, orain euskarari buruz berri zehatzak non ikasi bazuela eta. Mitxelenak sarrerako lanaren Eskeintzan esaten duenez, Azkuek Bizkaiko arbola zaharren gisara, eskuak betean zabaldu zituen ondasunak, euskaldunontzat eta erdaldunontzat, guztiok ezagun eta maita genitzan.

Gure mendean euskara lantzeko arrangura sentitu duten guztiek Hiztegi honetara jo dute, bada. Hegoaldean behintzat. Ez dugu ahaztu behar Iparraldean badutela Lhanderena. Eta Hegoaldean ere, Azkuerenaz gainera, badira beste zenbait; baina guztion aita, aita erraldoia, Azkueren Hiztegia dugu.

Azkueren Hiztegi hau, lehen esan dudan bezala, orain dela 80 urte egina da. Lehenagoko euskal idazleek nora jotzen zuten? Larramendirenera, noski. Baina hiztegi honetan ondasun franko badela ukatu gabe, bestelakorik ere asko dela aitortu behar, garia eta oloa nahas-mahas.

Horregatik, Azkuek Larramendirena baztertu behar izan zuen, eta obra berria zimendutik egiten hasi. Horretarako herriz-herri ibili zen, txango luzeak mendiz egin zituen baserritar, artzain eta ikazkinekin egoteko, zahartegietako aiton-amonatxoekin mintzatu zen, euskal idazle zaharren liburuak miratu zituen, etab. Horrela eskeini ahal izan digu uzta ugaria, jatorra eta fidagarria.

Bere burutik asmatzen ibili gabe zuzenean iturburuetara jo zuelako eta iturri horien sinestamenduak beti leialki ematen dizkigulako, eskubide osoz du Azkueren Hiztegiak fama ona irabazia.

Ez da, noski, Azkue izan gure artean hiztegi sailean lana ongi egiten saiatu den bakarra. Zaharretan hor dira, adibidez, Pouvreau, Harriet eta Hiribarren, baina zoritarrez horien lanak gaur ere oraindik argia ikusi gabe daude. Gure mendean eta gure egunetan izan dira eta badira beste zenbait hiztegi gintza sailean lan egin dutenak: Iparraldean Tournier-Lafitte eta Haize Garbia; gure artean Plazido Mujica, Bera-Mendizabal, Gaztelu-Auñamendi, Diccionario Retana de Autoridades, Kintana, L. M. Mujika, Montiano, eta barka denak izendatzen ez baditut. Denei esker ona zor diegu, noski. Baina horrek ez du den gutiena ere kentzen Azkueren Hiztegiaren balioari buruz esan duguna.